

Agustin Chaho (1) 1811-1858

Deia, 1983-08-17.

Joan den egunean, Pello Mari Otañoren "Zazpiak bat" aipatzen genuen, *Euskalerrria* aldizkariak 1900ean argitaratutako bertso eder batzutan.

Entzun izan dut lema hau lehen erabili zuena Chacho izan zela.

Neuk ez dut lema konkretu hau Chahon aurkitu, nahiz eta Euskal Herriaren batasuna osoki eta behin eta berriz baieztan badu ere. Sabineki estriktuki ematen du zazpiko hau. "Bizkaiak independentzia lor dezake; honek ez du esan nahi Euskalerrriko beste eskualdeak kanpoan gelditzen direnik; ez Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Nafarroa-Behera eta Zuberoa, enda hizkuntza, izakera eta ohitueraz lotuak daude, eta politikan nazionalista bide dutela *Konfederazio bat* osatzera deituak daude".¹

Ezin da argiago gai hau idatzia utzi, 1894ean.

Seikoa geroxiago dator eta zentzu berean: "Bizkaiako Alderdi Nazionalistarentzat 'dio 1879an'² Bizkaia hainbat da Nafarroa, Gipuzkoa eta Araba, eta horiek hainbeste Lapurdi eta Zuberoa; ez dio horietako bati lehentasunik ematen".

Gertatzen dena, zera da: Euskal Herriko naziotasunaren zentzua hiru alditan sortzen dela: 1) erromantikoena, 2) doktrinarioena eta 3) politikoena. *Erromantikoak* lehen karlistada ondoren (1839) sortzen dira, baliotsua den zerbait galdu dutenaren eraginez; hemen kokatzen da *Chahoren* lan argi eta intuikorra, *abertzalea*; sail honetan dator *Iparragirrer*en "Gernikako Arbola", *Valentín Olanoren* "nación patria", *Pedro Egañaren* "Lege Zarra" eta Espainiako Senatuan "*nacionalidad vasca*", (1846), eta beste modu askotara gauza berak adierazten: *Moraza*, *Apraiz*, *Becerro de Bengoa* eta *Baraibar* Araban; *Sagarminaga*, *Aristides de Artiñano*, *Jose María de Angulo* eta *Hormaza* bizkaitarren artean, eta Nafarroan (beti gurekin) *Aranzadi*, *Revista Euskara* Iruñan, *Esteban Obanos*, *Salvador de Etxaide*, *Joan de Iturralde y Suit*, *Arturo Campion*, *Nicasio Landa*, *Herminio Oloriz* eta *Daniel Irujo*.

Sabin Arana Goirik baditu, bada, aintzindari horiek.

Gizon handi honek egin zuena zera da, bihotz huts zen honi egitura politikoa eman, alderdi politikoa sortu, jomuga garbi eta indartsua aurrean jarri: "Euzkotarren aberria Euzkadi da", biderako lema eman: "Jaun-Goikua eta Lagi-zarra", ikurriña eta Eusko Abendaren Ereserkia eta bere bizia eskeini az gero hamar urtean egindako lan erraldoiaren heredentziaz gainera bere jarraitzaile izan ziren gizonak gertatu eta *Eusko Alderdi Jeltzalearen* egitura sendoan bere gisa utzi.

Ondorenak, gaurkoak: Agirrerren *ekintza praktikorako politikatik*, Leizaola bide dela, gaurko Garaikoetxearen lehendakaritzara.

¹ Sabin Arana Goiri, *Obra Completas*, volumen I, "Fuerismo es separatismo", Bilbao, 22 de abril 1894, pags. 267 y ss. Editorial Senda argitaldaria, Donostia, 1981.

² *Obra bera*, vol. II. "La unión", Bilbao, 8 de agosto de 1897. Pags. 1.356 y ss. id. id.